

ZUMAIAKO UDALA

GIPUZKOAKO PROBINTZIA

2004KO MAIATZAREN HOGEITAZAZPIAN UDAL PLENOAK EGINDAKO OHIZKO BATZARRALDIKO AKTA.-

Zumaiako hirian, bi mila eta laugarren urteko maiatzaren hogeitazazpian, arratsaldeko zazpi t'erdietan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan, Udal Plenoa eratu da ohizko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez izendatutako eguneko aztergaiari jarraituz. Eta garaiz eta eraonez deituak izan zirelarik, ondorenean aipatzen diren udal bazkideak etorri ziren:

LEHENDAKARITZA.-

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA Anderea.

ZINEGOTZIAK.-

Asier ESNAL ALBIZU Jauna.
Manuel ZUBIA ARTABE Jauna.
Lide AMILIBIA BERGARETXE Anderea.
Mikel OLAIZOLA ELOSUA Jauna.
Andoni ETXANIZ OSA Jauna.
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA Jauna.
Mikel GARATE GOLMAIO Jauna.
Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA Jauna.
Abel YEREGUI SASIAIN Jauna.
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ Jauna.
Paloma HEREDERO NEGREDO Anderea.
Cristina FORCADA UNANUE Anderea.

IDAZKARIA.-

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

1.- AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA (2004.01.29; 2004.03.18; eta 2004.04.01)

Alkate andereak bilera eratutzat eman ondoren, onarpenera aurkezturiko aktei buruz oharpen bat egin nahi lukeela dio.

2.004-ko martxoak 18-ko aktan 2. Puntuan, Hiru urtetik beherakoentzako hezkuntza eta laguntza arloko haur-eskolen kudeaketarako eraturako haurreskolak partzuergoan sartzeari buruzkoan, 13. orrialdean, zerbitzuaren kostueri buruz, Alkateak egiten dituen azalpenetan Udalak kostuen % 40-a bere gain hartzen duela jasotzen da eta hori ez da zuzena. Kostuaren % 40-aren ordainketa, haurren gurasoei dagokie.

Beste oharpenik ez dagoenez, bozketa eginik bilerara bertaturiko hamahiru zinegotzien aho batasunean onarpenera aurkezturiko hiru aktak 2003-01-29, 2.004-03-18 eta 2.004-04-01-eko aktak onartzen dira aipaturako zehaztapenekin.

2. – GIZA ESKUBIDEEN BATZORDE BERRI EMAILEAREN ERAKETA ETA OSAKETA, BIDEZKO BADA.

Alkateak zera dio, Plenoko deialdiarekin batera bozeramaileen batzorderako gonbita zabaldu zela. Plenoko gaiak landuta eramateko asmoz. Bozeramaileen Batzordea hiru kidez osatu da, eta azken orduan PSOE-ko ordezkaria azaldu da.

Gaiaren mamiari helduaz azalpen hauek egiten ditu:

GIZA ESKUBIDEEN BATZORDEA

AURREKARIAK

2003ko apirilaren 10ean egindako Osoko Udalbatzan egin zen Batzorde hau sortzeko eskaria. Han, Itziar Agirrezabalagaren aldeko Plataformakoek MOZIO bat aurkeztu zuten, eta bertan ondorengo eskariak jasotzen ziren:

- Udalak Plataforma horrekin harremanetan egongo den Batzorde bat osatzea.
- Plataforma honen laguntzarekin, eta zumaiaarak bertara biltzeak ekarriko lukeen indar moralarekin, dagokien erakundeetara jotzea, Eusko Jaurlaritzara, Giza Eskubideen Batzordera, Madrilgo Zigor-erakundeetara eta abar. Plataformak eta sortzera doan Batzordeak zehaztuko ditu zein diren egin beharreko urratsak.

Eztabaidaren ondoren erabaki hauek hartu ziren:

- Giza Eskubideen Batzorde orokorra sortzea.
- Batzorde horretako kide bat izendatzea Itziar aske uztea lortzeko egin beharreko urratsak egin ditzan, eta Itziarren askatasuna aldarrikatzen duen Plataformarekin harremanetan egon dadin.

PROPOSAMENA

Giza Eskubideen aldeko Batzorde bat sortzea. Bertan giza eskubideekin lotutako gai guztiak eztabaidatuko dira.

Oinarri eta erreferentziatzat Giza Eskubideen aldeko Adierazpen Unibertsala hartuko dute, eta kide guztiei eskatuko zaie han jasotakoaren arabera jokatzera.

KIDEAK

Alderdi bakoitzeko zinegotzi bat eta batzordeburu alkatea.

Berez, Batzordea itxia izango da baina, horrek ez du esan nahi batzordeak berak hala erabakitzen badu, eztabaidatzekoak diren gaietan interesa dutenak edo adituak direnak parte hartzera gonbidatu ezin direnik.

MAIZTASUNA

Batzordea 2 edo 3 hilabetetik behin bilduko da.

Hala ere, batzordeburuak, gertaera jakin baten ondorioz hala erabakitzen badu, ohiko maiztasunetik kanpo ere deitu ahal izango du.

PSOE-k ontzat ematen du Giza Eskubideen Batzordearen eraketa. Ez da lehen aldia modu honetako batzorde batean parte hartzen dugula. Eta adierazi behar da Batzorde hauek ez direla eragikorrak. Alde bakarreko giza eskubideen urraketaren azterleku bilakatzen diren heinean, partaideak batzordea utziz joaten dira. Abiapuntu aldaketa nabaritzen denean, denbora galtze bat izaten dira. Batzorde honetan Giza Eskubide guztien hausketak aztertu behar dira.

Alkatetzak, PSOE-ren azalpenekin bat datorrela dio. Zumaian su-etenaren garaian Giza Eskubideen Batzordea sortu zela adierazten du, nahiz eta formalki etzen eratu. Zoritxarrez su-etena haustearekin bat bertan behera gelditu zen.

Batzordearen xedea, Giza eskubide oro gauzatzeko joatea da. Ea lortzen dugun.

Bozketa eginik, bilerara bertaraturiko egitatezko eta eskubidezko hamahiru zinegotzieren aho batasunean ,

ERABAKI DA:

LEHENENGOA: Giza Eskubideen Batzorde Berri emailea eratzea, Alkatetzak egin duen proposamenarekin bat.

BIGARRENGOA: Batzordekideak hauek izango dira:

Lehendakaria: Alkate anderea.

Batzordekideak: Gorporazioan ordezkari den Alderdi bakoitzak izendatzen duen zinegotzi bat.

3.- IZUSTARRI HERRI PLATAFORMAK AURKEZTUTAKO MOZIOA HERRI KANDIDATUREN ILEGAZIOARI BURUZKOA.

Alkateak aurrekari gisa, Udal Batzaren mozioak eztabaidatu eta bozkatu daitezkeen ukan behar hauek bete behar direla dio:

Soilik Gai ordenean sartzen diren mozioak aztertzen dira eta aurrez Batzorde berri emaile batean diktaminatuak. Mozioa bere arosotasunean bozkatzeko da.

IZUSTARRI-k dio EB-IU-ren ekimenez eztabaidaturiko genero bortxaketari buruzko mozioan textua bere osotasunean onartu beharrean ñabardura batekin onartu zela.

Alkatetzatik baietz erantzuten zaio, baina aurrez batzordean mozioa aztertu eta aldaketa hori sartuko zela erabaki zen. Nahiz eta gero Plenora aurkezturiko mozioan zuzenketa etzen sartu.

Ondoren mozioaren textua irakurtzen da:

APARTHEID POLITIKOA, URTEBETE BERANDUAGO

Ehundaka herri kandidatura legez kanpo utzi ondoren, milaka Euskal Herritarren ahotsa isildu nahi izan zen duela urtebete, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroa Garaian egin ziren Udal Hautsekundeetan. Oraindik gaur egunera bitarteko gertaeren kokapena egin eta egoera honen aurrean erabaki politiko bat hartzeko helburuarekin, IZUSTARRI, herri plataformak, honako MOZIO hau aurkezten du, Osoko Udal Batzarrean eztabaidatu eta onartua izan dadin.

2003ko maiatzaren 25a, Euskal Herriaren historia garaikidearen egunik tristenetariko bat izan zen. Urtebete pasa da eta egun hartan herriari egin zitzaion iruzurrak indarrean jarraitzen du gaur egun ere. Milaka dira, egun artan iritzia eman, eta bere erabakia, beste behin ere, errespetatua ikusi ez zuten herritarrak. Gaur da eguna, urtebete pasa ondoren, eta hainbatek herri honentzat aldaketa handiak eman direla aldarrikatzen duen arren, iruzur hark ehundaka udaletan indarrean jarraitzen duena.

Eskubide zibil eta politikoak desagertarazi eta apartheid gordina ezarri zantetik, urte bat beteko den honetan badira batzuk udaletan demokraziaren berrezartzearen 25. Urteurrena lotsarik gabe ospatzen dutenak, Franco-k orain 40 urte, bakearen 25 urte ospatzen zituen bezala, Francok ospatzen zuen bakea, isiltasun inposatuan oinarritzen zen, kanposantuetako bakea zen, egun ospatzen duten demokrazia, eskubide politiko eta zibilen desagertapenean oinarritzen da, bunkerretako demokrazia da.

2003ko udaberri hartan, espainiar faxismoak herri honen ahotsa debekatuko zuenaren zantzu handiak egonik ere, herriak kalera irtiten zuten, antolatu egin zen, sinadurak bildu zituen eta guztiaren gaineratik, faxismoaren legalitateari baino herriaren borondateari men egingo ziola aldarrikatu zuen. Zailtasun hauek guztien gaineratik, ezkerreko hautu abertzalea zabaldu eta landu nahi izan zuten herritarrek, kanpaina egiteko debekuak, mota guztietako karga polizialak, isunak eta hainbat ukazio gehiagojasa behar izan zituzten.

Maiatzaren 25^a heldu zen, eta Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroa Garaiko herritarrek, beraien borondatea adierazi zuten. Inon ez bezala, herritarren iritzia legalitate antidemokratikoen gaineratik jartzen asmatu zuen, beste behin ere, faxismoak herrien iritzia desagertarazteko duen helburua porrotera bidaliaz. Desagertarazi nahi izan zituzten milaka bozka agertu ziren Hego Euskal Herriko hautes ontzietan. Bozka horietako bakoitzaren atzean, Euskal Herriak nazio gisa dituen eskubideak errespetatuak izatearen aldeko hautu bat zegoen. Atzerriko edozein legalitatearen gaineratik, herriaren eta herritarren hitzaren balioan sinesten duten herritarren hautua. Euskal Herriak aurrera egingo badu, espainiar eta frantziar estatuen bidean jartzen dizkiguten kate guztien gaineratik pasa beharko dugula, aspalditik dakiten herritarren hautua.

Legalitatearen mozorropean frankismoaren erreforma burutu zuten faxista berberak, gaur egun ere, Madrilgo egindako legea erabiltzen dute Euskal Herria estatu espainiarraren baitan preso mantentzeko, herriari borondatea adierazteko bideak ukatzeko, egunkariak ixteko, hizkuntza eskubideak zanpatzeko, ...

Eta legalitate hori bera izan zen, 2003ko ekainaren 14an, ehundaka udalen osaketa egunean erreferentzia gisa hartu zena. Herritarrek hautesontzietan emaniko iritzia bizkarra emanaz, Madrilgo faxistek baliogabekotzat jotako milaka herritarren borondatea baztertu zuena. Hautes ontzietatik desagertzerik lortu ez zuten errealitatea, Udaletatik desagertarazi nahi izan zuten; milaka herritar,

hautatzeko edo hautatua izateko eskubiderik gabe utziaz eta eskubide politikoak ukatuz, bigarren mailako hiritar izatera kondenatuaz.

Gaur da eguna, herritarren borondatea desitxuratu eta demokraziari iruzur eginaz, duela urtebete hautatutako udal horiek, herriaren hitza eta borondatearekin zorretan daudena.

Hori guztia kontutan izanik, honoko puntu hauek aurkezten dizkiogu Osoko Udal Batzarrari bertan eztabaidatuak eta onartuak izan daitezen:

1.- Udal honek tristuraz gogoratu eta ozenki salatzen du duela urtebete Madrilek gure herriaren eta herritarren eskubide politikoak urratzeko egindako saiakera. Zoritxarrez, ez da lehena, ezta azkenekoa izango ere.

2.- Udal honek aldarrikatzen du herritar oro eskubide zibil eta politiko guztien subjektu dela. Era berean, euskal herritar orori dagokigu gure herriaren etorkizuna erabakitzea, eta hori lortzeko eta benetako demokrazia lortzeko, alderdi politiko, sindikatu, gizarte-eragile eta instituzioguztiei elkarrizketa eta konponketarako konpromisoa eskatzen die. Udal honek ez du onartzen herritarren hitzaren borondatearen gainetik dagoen inongo legalitatearik.

3.- Plataformen eskubideak gabetzearen baitan sortu den egoeraren aurrean, Udal honek dei egiten die herritarrei maiatzaren 25ean egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko.

EAJ-k zera adierazten du, mozioaren sarrerako testuarekin ez direla sartuko, bozketara aurkezten diren puntuari buruz berriz esan:

Mozioaren lehenengo puntuarekin ados. Madril dionean Estatu Espainiarra esan beharko lukeen zehaztapena salbu. (Mozioan behin eta berriz Madril esanten denean, ordez Estatu espainiarra esan beharko luke. Adibidez: Madrilgo faxistak, estatuko faxistak; Madrilen egindako legea, estatu espainiarrean egindako legea ...)

Bigarren puntuarekin ere ados azken esaldia salbu. Esaldi hori ez dugu onartzen arrazoi hauengatik:

Zoritxarrez, egun bizi dugun egoera politikoan, Estatuak ezarritako legedi eta arautegiari dagokionez, ez Udal honek, eta ez gainontzeko besteek, ez dute kasuan kasuko beraiekiko Herriaren adostasuna egiaztatzeko ahalmenik ez eta ere menperatzaile dugun estruktura politikoak, hau da espainiar estatuak, ezarritako legediaren eraginkortasunaren aurka jarduteko ahalmenik, nahiz eta guk Herri horri (hau da Euskal Herriari) subjektu politiko bezala dagozkion eskubide guztiak onartu. Eta berriz ere zoritxarrez, horrela izango da aipatutako estruktura politikoa aldatzeko gai ez garen bitartean.

Mozioaren hirugarren puntuari dagokionez maiatzaren 25-a pasa dela esatea besterik ez dagokigu.

PSOE-k mozioaren alde ez daudela aurreratzen du Diputatuak ez dira faxistak. Legeak Madrilen egiten dira, legebiltzarra bertan dagoelako.

Plataformak lege kano gelditu ziren Partiduen Legea betetzearen ondorioz. Lege hau Diputatuen % 95-a baino gehiagoen botuz onartu zen. Europako demokrazia ia guztietan, eta batez ere zaharretan, antzeko legeak daude, eta izen haxe edukitzen dute: "Demokrazia defendatzeko legea". Beraz, Espainiako legea horietarikoa da, eta besteek homologatzen dute.

Euskal Erakundeek, Espainiako gainerakoak bezalaxe, eskubideak eta betebeharrak dituzte. Legeak errespetatu eta betearaztea, eta horietan jasota dauden eskubideak errespetatu daitezela bermatzea.

Udal hauteskundeetako emaitzak ezin dira aldatu, ez zuzenean eta ez zeharka. Izan ere, Zinegotziak “legezko” zerrendei, adjudikatuak izan ziren, herritarren botoaren bidez lortutako ordezkariaren arabera, demokrazia guztietan gertatzen den bezala.

EA-k honoko azalpenakegiten ditu:

EUSKO ALKARTASUNA

1.-Alderdi Politiko, plataforma elektoral edo hautesleen elkarte guztiak aukeren berdintasun osoz eta inolaz inongo traba, behartze edo oztopo egon gabe bere burua hauteskundeetara aurkezteko eskubide berdina dutela defenditzen dugu beste behin eta era berean, gizarteak bere ordezkari politikoak aukeratzeko duen eskubidea defenditzen dugu ere.

2.-Edozein indarkeriazko ekintza, mehatxu edo koakzioaren eraginaren ondorioz edozein herritarrek daukan Udaleko egunez eguneko bizitzan parte hartzeko eskubidea eragoztuta geratzen bada, nahiz eta gure edo beste herriko pertsona bakar baten kasua izan, gaitzesten dugu berriro ere.

3.- Era berean, eta jarrera demokratiko berdin honetan oinarrituz, gure hiritarren zati bat udal erakundeetan ordezkari izatea demokratikoa lortu ez izatearen ondorioa eduki dituzten bultzatutako ekintza guztiak errefusatzeko ditugu.

4.- Herriko pertsona, arlo politiko eta sozial guztiak, bereizketarik egin gabe, Udaleko egunez eguneko bizitzan parte hartzeko daukaten eskubidearen aldeko hartuta daukagun konpromezua adierazten dugu berriro.

5.- Gure herriak bizi duen gatazka politikoaren irtenbidera bakarrik elkarrizketa, bide baketsu, eta giza-eskubide guztiak, bai gizabanakoak bai kolektiboak, betetzearen bitartez ailegatu daitekeela bakarrik baieztatzen dugu.

6.- Balore eta oinarri demokratikoen ezarpen eta garapenaren aldeko apostu tinko eta argia egiten dugu eta, aldi berean, bai biolentziaren estrategian eta baita bide errepresiboan mugutzen dire pertsona guztien paper zapuztutzailea ere salatzen dugu.

Aldi berean adierazten dute, Diputatuen %95-ak Alderdien legea ontzat eman izanak ez duela ongi eginga dagoenik esan nahi.

Gure alderdiak Alderdien Legearen alde ez gaudela esaten duenean arrazoi batzuk hausten den eskubideetako bat adierazpen eskubidea delako da.

Auzitegi Konstituzionalak ilegalizatu egin zituen nahiz eta ez dagoen alderdi Politiko bat lege kanpo uzterik ekintza terroristak salatzen ez dituelako.

Mota honetako legeak badaude Frantzia. Baina le Pen ere hor dago eta faxista da.

Gizarte honetako zati garrantzitsu bat diren heinean ez dago bazterrean uzterik.
20-25 urtez legezko izan dira, orain zergatik legez kanpo utzi behar dira?
PSOE-ri bide hau zuzendu dezan eskatuko genioke. Adierazpen eskubidea ez dezatela mugatu.

PSOE-tik azpimarratzen da, lege horrek, europako filtro guztiak gainditu dituela.

Alkateak kode penala zergatik ez den aplikatzen galdetzen du. Legearen edukia eztabaidagarria da. Eta eguneroko bizikidetzan Politikoan arazoak sortzen dizkigu. Modu honetan, Politikan normaltasunez parte hartu behar zuen jende asko alboratzen da.

A.E-ko bozeramaileak dio, Strasburgon legearen edukia ez zutela aztertu, atzera bota bazuten arazo formalengatik izan zela eta min ematen badu ere, ezker abertzaleak gizartearen ordezkartzan portzentai bat du eta estatua erakundeetan ordezkartza hori izan ez dezan ahalegintzen da.

IZUSTARRI-k dio Strasburgok legea atzera botatzeko arrazoi zehatza Eusko Jaurlaritzak mota honetako helegitea tarteratzeko eskumenik ez zuela, izan zela.

PSOE-ren diskurtsoan errealitatearen, bertsio ezberdinak daude hitzegiten duenaren arabera, Odonena, Ibarrena, Maragalena, ...

EB-IU-k bere ezezko botua, EAJ-ren azalpenetan oinarritzen duela dio.

IZUSTARRI-k EA-ri aldarrikatzen dituzten eskubideak nola defenditzen diren galdetzen dio.

EA-k erantzuten dio, Mutrikun adibidez plataforma ilegalizatueri eserlekuak utziaz.

IZUSTARRI-k erantzuten dio Mutrikun E.A eta ezker abertzalea betidanik ongi konpondu direla, baina beste herrietan berdin gertatzen den kezka azaltzen du.

PSOE-ko Palomak dio gai korapilotsua dela. Pertsonalki edozein alderdi Politikoen ilegalizazioa arriskutsua iruditzen zaiola. Baina moralki kontraesan nabarmena sortzen zait hilketa bat salatzen ez dutenekin. Ulertzen saiatzen naiz. Faxismoaz hain arinki hitzegitea izugarria iruditzen zait. Ez dakit sistema demokratiko onena izango den, baina txarrenetan onena bai. Hau ezin da onartu. Ezin dut hilketarik salatzen ez dutenekin hitzegin.

IZUSTARRI-k dio, errezena beti erantzukizuna besteeri bizkarreratzea dela. Norberak bere buruarekiko hausnarketa egin beharko luke. Eta hilketetan erantzukizunik ba duten galdetu.

Alkateak dio autokritika denok egin beharrekoa dela. Baina horrek ez du esan nahi baloiak kanpora bota behar ditugunik. Ez eta ere besteak egindako bidegabekeriak, GAL, IRAK ... gureak sendotzen dituztenik pentsatu.

Bozketa eginik, bilerara bertaraturiko egitatezko eta eskubidezko hamahiru zinegotziren aurkako hamar botuz (bost EAJ-renak, bi E.A-renak, bi PSOE-renak eta bat EB-IU-rena) eta aldeko hiru botuz IZUSTARRI-renak,

ERABAKI DA

Izustarriren ekimenez aurkeztutako Apartheid politikoa urtebete beranduago izenburua duen mozioa ez onartzea.

4.- ESKARI – GALDERAK.-

Alkateak Udal euskara teknikaria den Belen Golmaiori, egun gutxi barru jubilatzen dela eta, egin duen lanagatik eskerrak ematen dizkio gorporaziokideen izenean eta txalo bero batekin agurtzen dute denek.

IZUSTARRI-k beste mozio bat ere sarrera erregistroan aurkeztu zela adierazten du eta Gai Ordenean zargatik ez den sartu galdetzen du.

EAJ-k beste bi mozio gehiago aurkeztu zirela baieztatzen du. Bata zenbait sindikatoen izenean aurkeztua, pertsonaleko Batzordean aztertuko da eta ondoren Plenora eraman edo ez erabakiko da.

Bigarrena "Ama Lurra defenda dezagun" Ingurumen batzordean aztertuko da eta era berean Plenoan sartu edo ez erabakiko da.

IZUSTARRI-k Europar Hauteskundeetan H.Z-rentzat dohaineko propaganda gunea eskatzen du.

Gaia eztabaidatu ondoren dohaineko propaganda gunea IZUSTARRIrentzat gordetzea onartzen da.

IZUSTARRI-tik zera azaltzen dute, Udal Aldizkariaren lau ale jaso dituztela eta batekin nahikoa dela.

Aurrerantzean hori horrela izan ez dadin neurriak hartuko direla erantzuten da.

EB-IU-tik aldizkarian euskarazko artikuloak gazteleraz laburpen bat izan dezaten eskatzen da.

EAJ-tik, Euskararen aldeko politika aktiboa bultzatzen dela adierazten da.

PSOE-tik aldizkarian alderdieri eskaintzen zaien tartea ikusirik, 12-tik 15 lerrora luza daitekela adierazten da.

Laburtzea adimentsuen ezaugarria dela erantzuten zaio EAJ-tik.

IZUSTARRI-k Hitza eta Baleikeri dirulaguntza, batera eman zaiela adierazten du eta ea ez den posible bakoitzari dagokion dirulaguntza kopurua banatuta ematea galdetzen dute.

Alkateak zera esanaz erantzuten du, pertsona berdinak direla txapel ezberdinekin, eta beraiek erabaki dezatela dirulaguntza nola banatu.

E.A-k Portugaleteko liburutegian egin den euskararekiko jokabide baztertua salatzen du.

Alkateak adostasuna azaltzen du, baina zalantzan jarriaz salaketa hau Plenoko gaia ote den.

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate-Lehendakari andreak bilera amaitutzat ematen du, gaueko bederatiak direnean, eta nik Idazkariak fede ematen dut.

ALKATEAK O.E

IDAZKARIAK